



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2015EKO URRIAREN 28KO EZ OHIKO UDALBATZA

:

NOIZ: 2015eko urriaren 28an, arratsaldeko 16:00etan

NON: Ikaztegietako Udaletxeko Areto Nagusian

BERTARATUAK: Alkatea: Bakarne Otegui Jauregui (EH BILDU)

Zinegotziak:

Miren Josune Mendizabal Macazaga (EH BILDU)

Igor Urreta Garayalde (EH BILDU)

Idazkaria: Jose Mari Saiz Pagoaga.

BERTARATU EZ DIRENAK:

Xabat Ibareguren Lazkano (EH BILDU)

Patxi Ulanga Mujika (EAJ-PNV)

Maria Belen Plaza Malaxetxebarria (EAJ-PNV)

Imanol Ormazabal Arin (EAJ-PNV)

AZTERGAIAK:

1.- 2015ko ordenantza fiskalen onarpena.



- **ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK:**

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, Alkateak bilkura irekitzat ematen du.

Bestalde Udalbatzak aho batez berretsi egiten du gai ordena eta beraz gai zerrendako gaien azterketari ekiten zaio.

1.- 2016. URTEKO ORDENANTZA FISKALEN BEHIN BEHINEKO ONARPENA.

Udalaren asmoa udal aurrekontu osatzen duten sarrerak gehitzea da, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak eta gauzatzen dituen jarduera publikoak finantzatu eta behar den neurrian horien kalitatea hobetzeko xedearekin.

Helburu hauen markoan, Ogasun Batzorde Informatzaileak udal zerga sistema osatzen duten figura desberdinak aztertu ditu. Kontuan izanik zerbitzu batzuk duten kostua, eta jakinik zerbitzu horiek eskaintzeagatik tasak kobratzen direla, zerbitzu hauek arautzen dituzten ordenantza fiskalak eta dagozkien eranskinak aldatzea proposatzen dio udalbatzari, beti ere 2016. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Proposatzen diren aldaketak honako hauek dira:

DERRIGORREZKO ZERGAK:

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA.

2015. urterako aurreikusia zegoen tipoari %7 igoera aplikatzea. Industrian tipoa 0,3915 izatetik 0,4189 izatera pasako da. Hiri lurrean tipoa 0,1588 izatetik 0,1700ra pasako da. Landa lurrean 0,7995 izatetik 0,855 izatera pasako da.



TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

2015. urterako aurreikusia zegoen tipoari %7 igoera aplikatzea. Tipoa 1,6724 izatetik 1,7894 izatera pasako da.

EKONOMI JARDUERA ENPRESARIAL ETA PROFESIONALEN GAINEKO ZERGA

2015. urterako aurreikusia zegoen tipoari %7 igoera aplikatzea. Tipoa 1,4000 izatetik 1,5000 izatera pasako da.

.

BORONDATEZKO ZERGAK:

HIRI IZAERAKO LURREN BALIOAREN GAHIKUNTZARI BURUKO ZERGA

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO
PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK:

1 ZENBAKIDUN ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA :

1) Udalaren herri erabilerako terrenoak hartzea merkantziak, eraikuntza materialak, obra hondakinak, hesiak, puntelak, asnilak,



aldamioak eta antzeko beste instalazio batzuk jarriaz.

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.

2) Aparkamendu murrizturako ibilgailuen sarrerak kaleko espaloietan eta erreserbetan zehar, ibilgailuen geralekuak, edozein motatako merkantzien karga eta deskarga.

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.

3) Erabilpen publikoko lurretan postuak; kaleko salmenta, feria, herri jaietako postuak, e.a.

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK
BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK:

2 ZENBAKIDUN ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINA :

1) Zabor bilketa eta hiri hondakin solidoen bilketa zerbitzuaren tasa.

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.



2) Establezimenduen irekitze lizentziak emateagatiko tasa.

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.

3) Hilerriko zerbitzuen tasa.

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.

4) Lizentzi eta espediente urbanistikoek tasa.

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.

5) Kiroldagiko instalazioen erabilera.

Pilotalekua

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.

Dutxak

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.



Gimnasioa

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.

6) Udal fotokopiagailu eta fax-aren erabilera

Mantentzen da 2015. urteko Ordenantza Fiskalen tipo bera.

7) Etxez etxeko laguntza zerbitzua

- Tasa, orduko	18,61 jai egunetan
	22,30 jai egun eta aste bukaeratan

Gaia eztabaidatu ondoren, bozkatu egiten da eta bertaratutako zinegotziek aho batez, honako hau erabakitzen dute:

LEHENA: Ogasun Batzorde Informatzailearen proposamena azaldutako hitzetan onartzea.

BIGARRENA: Izan daitezkeen erreklamazio edo ohar ondoriotarako aurreko azalpenak erreferentzia egiten dituzten akordioak 30 lanegunetako epean informazio publikora jartzea.

HIRUGARRENA: Hartutako akordioak eta Ordenantza eta beraien ERANSKINEN aldaketak behin betiko bihurtuko dira erabaki berririk hartzeko premiarik gabe, informazio publikorako erreglamenduzko epea igarota inolako erreklamazio edo oharrik izango ez balitz.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2015EKO URRIAREN 28KO EZ OHIKO UDALBATZA

:

Horrenbestez, arratsaldeko 16:45 orduak direnean, Alkateak bilkura amaitutzat eman du. Eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut alkatearen oniritziarekin.

Ikaztegietan 2015ko urriaren 28an

O.I.
ALKATEA,

Idazkaria,